


M_{LH4}

2017-2018



Zuzenketa koaderno

Izen-abizenak:

Ikastetxea:

Taldea/Gela:

Herria:

Eguna:

**Matematika
gaitasuna**

Lehen Hezkuntzako 4.a



Argibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzunen diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Batzuek lau erantzun posible izanen dituzte eta, haien artean, aukera zuzen bakarra hautatu beharko duzu eta biribil batekin inguratu haren ondoan dagoen letra. Adibidez:

<p>Zenbat da $2 + 5$?</p> <p>A. 2</p> <p>B. 6</p> <p><input checked="" type="radio"/> C. 7</p> <p>D. 11</p>

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin zure lehenbiziko aukera eta inguratu biribil batekin erantzun zuzen berria, adibidean agertzen den bezala:

<p>Zenbat da $2 + 5$?</p> <p><input checked="" type="radio"/> A. 2</p> <p>B. 6</p> <p><input checked="" type="radio"/> C. 7</p> <p>D. 11</p>
--

Beste galdera batzuetan eskatuko dizute erantzuna idazteko puntuekin seinalatzen den tartean:

<p>Idatzi zenbat angelu eta zenbat alde dituen triangeluak.</p> <p>.....</p>



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

Patinajea

Pablok Lehen Hezkuntzako 4. ikasmaila ikasten du. Izugarri gustatzen zaio patinajea, bai pistakoa bai izotz gainekoa. Ahal duen guztietan, patinatzeraz joaten da bere familiarekin. Badabil ere patinaje talde batean, eta zenbait lehiaketatan hartzen du parte bere taldekideekin.



1. Pablok 8 bira oso eman dizkio bere etxe ondoan dagoen patinaje pistari eta, guztira, kilometro 1 egin du. Zenbat metro neurtzen ditu pistaren bira batek? Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak.

Zenbait metodo erabil daitezke, adibidez:

$$1 \text{ km} = 1000 \text{ m} \quad 1000 : 8 = 125 \text{ m}$$



Bira batek**125**..... metro ditu.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketa.
1	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere, eskatutako neurri unitateetan.

2. Pabloren patinaje taldeak patinatzeko materiala erosi du. 12 kasko eta 6 patin-pare erosi dituzte. 100 euroko 7 billetekin ordaindu dute. Zenbat diru itzuliko diete?

Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak.

Zenbait metodo erabil daitezke, adibidez:

$$12 \times 17 = 204$$

$$6 \times 69 = 414$$

$$414 + 204 = 618$$

$$7 \times 100 = 700$$

$$700 - 618 = 82 \text{ euro}$$



.....**82**..... euro itzuliko diete.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. Era berean, 0 puntu emanen dira ikasleak kalkuluko 3 hutsegite edo gehiago egin baditu, edo soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren) baina ez eragiketak.
1	Planteamendua zuzen egin du, baina kalkuluetan hutsegite bat edo bi egin ditu.
2	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.

3. Begiratu patinak dendan duen erreferentzia zenbakiari. Zein da patinaren zenbakiaren deskonposizio zuzena?

A. $2 \text{ HM} + 1 \text{ E} + 5 \text{ H} + 8 \text{ B}$

B. $2 \text{ HM} + 1 \text{ M} + 5 \text{ H} + 8 \text{ B}$

C. $2 \text{ HM} + 1 \text{ M} + 5 \text{ E} + 8 \text{ B}$

D. $2 \text{ HM} + 1 \text{ M} + 5 \text{ E} + 8 \text{ H}$



Erreferentzia: 21058

4. Begiratu irudian agertzen diren patinei:



Simetri ardatza kontuan hartuta, patinetako bi simetrikoak dira ereduko patinarekiko. Zeintzuk?

- A. B eta D patinak.
- B. A eta C patinak.
- C. B eta C patinak.
- D. A eta B patinak.

5. Irudian ageri den patinatzeko izotz-pistak 56 metroko luzera eta 26 metroko zabalera ditu. Zenbat metro neurtzen du izotz-pistako perimetroak?

Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak.

Zenbait metodo erabil daitezke, adibidez:

- $56 + 56 + 26 + 26 = 164 \text{ m}$
- $56 \times 2 = 112$; $26 \times 2 = 52$; $112 + 52 = 164 \text{ m}$



Perimetroak**164**..... metro neurtzen du.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketa.
1	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere, eskatutako neurri unitateetan.

Pablori, bere arreba Aneri eta beren ama Maitaneri asko gustatzen zaie izotz gainean patinatzea. Pablok 10 urte ditu eta bere arreba Anek, berriz, 5 urte.

Ondoko taulan izotz-pistarako sarreraren prezioak ageri dira:

Sarreraren prezioa	Astelehenetik ostegunera	Ostiraletik igandera
HAURRAK (3 - 6 urte)	4,90 €	6,80 €
GAZTEAK (7 - 15 urte)	5,90 €	8,40 €
HELDUAK (+16 urte)	6,90 €	10,40 €

Aurreko informazioa haintzat hartuta, hurrengo galderak erantzun itzazu:

6. Larunbatean, Pablo, Ane eta Maitane izotz-pistara patinatzerara joan ziren. Guztira, zenbat ordaindu zuten sarrerengatik?

- A. 17,70 €.
- B. 24,60 €.
- C. 25,60 €.
- D. 27,60 €.



7. Igandean ere, Pablo, Ane eta Maitane izotz-pistara patinatzerara joan ziren. Zenbat euro garestiago izan zen Maitaneren sarrera Anerena baino?

- A. 2,00 €.
- B. 3,10 €.
- C. 3,60 €.
- D. 4,60 €.

8. Datorren astean, Pablo astelehenean joanen da patinatzerara eta Maitane eta Ane, aldiz, ostiralean. Ordenatu Pablo, Maitane eta Ane, bakoitzaren sarreraren prezioaren arabera, merkeenetik garestienera.

- A. Ane < Pablo < Maitane
- B. Ane < Maitane < Pablo
- C. Pablo < Maitane < Ane
- D. Pablo < Ane < Maitane



9. Izotz-pistako aparkalekuak 300 toki ditu. Larunbatean aparkatzeko tokien $\frac{4}{5}$ bete ziren. Aparkatzeko zenbat toki bete ziren?

- A. Aparkatzeko 60 toki.
- B. Aparkatzeko 120 toki.
- C. Aparkatzeko 180 toki.
- D. Aparkatzeko 240 toki.

10. Izotz-pistan 480 eserleku daude bisitariarentzat. Joan den astean, erakustaldi batean, 120 eserleku libre geratu ziren. Bisitari bakoitzak 4 euro ordaindu zituen eserlekuagatik. Zenbat diru bildu zen?



Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak.

Zenbait metodo erabil daitezke, adibidez:

$$480 - 120 = 360$$

$$360 \times 4 = 1440 \text{ €}$$

Bildu ziren**1440**..... euro.





Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketa.
1	Planteamendua zuzen egin du, baina kalkuluetan hutsegite bat bakarra egin du.
2	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.

11. Ondoko taulan ageri da zenbat bira eman zituzten Pablok eta bere lagunek txapelketaren lehen egunean.

Pablo	Idoia	Lorea	Julen
25	29	18	16

Zein grafikok irudikatzen ditu ongi taulako datuak?

- A. A grafikoa.
- B. B grafikoa.
- C. C grafikoa.
- D. **D grafikoa.**




Urbasa-Andia parke naturala

Parke honetan zenbait ibilbide eta bidexka daude, mendizaleek asko erabiltzen dituztenak.

Urbasan bada kanpin bat, bisitari asko hartzen dituena.

Artzain batzuek beren bordetan igarotzen dute uda. Gazta egiten dute beren ardien esnearekin eta bisitariak gazta horiek erosi ohi dituzte.



12. Joan den urtean ehun eta hogeita hamabost mila eta hirurogeita hamasei pertsonak bisitatu zuten Urbasa-Andia parke naturala. Nola idazten da kopuru hori zenbakitan?

- A. 13 576
- B. 135 066
- C. 135 076
- D. 135 706


13. Urbasako artzain batek lasto-fardoak beteriko kamioi bat deskargatu du bere baserrian. Geroago, artzainak gazta oso bat hartu du eta hamaiketako egiteko moztu du.

Begiratu irudiei. Zer gorputz geometrikoren antza dute fardo batek eta gazta batek, hurrenez hurren?

- A. Prisma eta zilindroa.
- B. Prisma eta esfera.
- C. Prisma eta konoa.
- D. Piramidea eta zilindroa.



Lasto-fardoak



Gazta

Karlos eta bere familia asteburuan Urbasako kanpinean egon dira.

Ikusi oinezko ibilbideei buruzko taula. Bertan hiru ibilaldi ezberdinen inguruko informazioa ematen da.


Ibilaldiaren izena	Mendizaleak ●●●●	Artzainak ●●●●	Iturriak ●●●●
Iraupena	1 h 20 min	2 h 20 min	1 h
Distantzia	3 km 800 m	7 km 600 m	4 km 500 m
Desnibela	205 m	55 m	45 m

14. Asteburuan hiru ibilbideak egin dituzte, osorik. Zenbat metro egin dituzte guztira?

- A. 14 800 metro.
- B. 14 900 metro.
- C. 15 800 metro.
- D. 15 900 metro.

15. Igandean 08:55ean hasi zuten artzainen ibilbidea. Taulan adierazten den denbora behar izan zuten ibilbidea burutzeko. Zer ordutan bukatu zuten ibilbidea?

- A. Goizeko hamarrak bost gutxitan.
- B. Goizeko hamarrak eta laurdenetan.
- C. Goizeko hamaikak eta laurdenetan.
- D. Goizeko hamaikak eta hogeian.



16. Karlosen aitak artzain bati berdina 4 gazta eta botila handi bat esne fresko erosi dizkio. Guztira, 111 euro ordaindu ditu. Gazta bakoitzagatik 23 euro ordaindu du. Zenbat balio du botila handi bat esnek?

Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak.

Zenbait metodo erabil daitezke, adibidez:

$$23 \times 4 = 92$$

$$111 - 92 = 19 \text{ €}$$





Botila handi bat esnek**19**..... euro balio du.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketa.
1	Planteamendua zuzen egin du, baina kalkuluetan hutsegite bat bakarra egin du.
2	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.

17. Begiratu kanpineko planoari. Karlos R partzelatik atera da lagunen partzelara joateko (begira iezaiozu gezi gorriari).

Ondoko jarraibideei segitu die:

- Iturriraino joan da. Iturria: 
- Bira egin du bere ezkerretara eta kalean aurrera egin du.
- Kalearen bukaeraraino iritsi da.
- Bira egin du bere eskuinetara eta kalean aurrera egin du.
- Eskuinean dagoen lehen partzelan sartu da.



Zein partzelatan daude bere lagunak?

- A. M partzelan.
- B. B partzelan.
- C. D partzelan.
- D. **K partzelan.**

- 18.** Karlos eta bere lagunak merendatzeko elkartu dira. Karlosek litro eta erdiko botila bat laranja-zuku eraman du eta lagun batek litro bateko botila bat. 20 zentilitroko 9 edalontzi edan dituzte. Zenbat zentilitro laranja-zuku geratu dira soberan?

Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak.

Zenbait metodo erabil daitezke, adibidez:

$$1,5 \text{ l} = 150 \text{ cl} \quad 1 \text{ l} = 100 \text{ cl}$$

$$150 + 100 = 250$$

$$9 \times 20 = 180$$

$$250 - 180 = 70 \text{ cl}$$



.....**70**..... zentilitro laranja-zuku geratu dira soberan.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. Era berean, 0 puntu emanen dira ikasleak kalkuluko 2 hutsegite edo gehiago egin baditu, edo soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren) baina ez eragiketak.
1	Planteamendua zuzen egin du, baina kalkuluetan hutsegite bat bakarra egin du.
2	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.

19. Begiratu ondoko unitateei:

milimetroa	litroa	metroa	kilogramoa	hektolitroa	zentigramoa
-------------------	---------------	---------------	-------------------	--------------------	--------------------

Hautatu unitaterik egokiena taulan ageri diren hiru magnitudeak neurtzeko.
Hautatutako unitate bakoitzaren izena idatz ezazu:

Magnitudea	Neurri unitaterik egokiena
Beteta dagoen motxila baten pisua.	kilogramoa
Ur-pitxer baten edukiera.	litroa
Zuhaitz sendo baten altuera.	metroa

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Ez ditu idatzi kilogramo, litro eta metro unitateak dagokien tokian.
1	Kilogramo, litro eta metro unitateak dagokien tokian idatzi ditu.

20. Kanpineko sarreran harri landu bat dago. Begiratu irudiari.

Triangelu aldeberdinen zenbat tamaina desberdin bereizten dira?

- A. Tamaina bat.
- B. Bi tamaina.
- C. **Hiru tamaina.**
- D. Lau tamaina.



GOGORATU!
Aldeberdin = Aldekide